

HECTOR BERLIOZ

Erromantizismoko konpositore, zuzendari, musika kritikari eta idazle frantsesa. Hector Berlioz (1803-1869) orkestra modernoaren sortzailetzat jotzen da. Sentimendu eta emozioetan neurritz gainekoa, bere musika bere mundu-ikuskeraren eta bere bizipenen erakusgarria da.



Hector Berlioz 1832an. Erretratua Émile Signolek egin dela uste da.

Hector Berlioz Côte-Saint-Andrén jaio zen. Bost senideetan zaharrena izan zen, bostak ere Louis Berlioz (medikua) eta Antoinette-Joséphine Marmion. senar-emazteek ekarriak. 1811z geroztik, aita arduratu zen semearen heziketaz, musika eskolez barne: izan ere, txirula eta gitarra jotzen irakatsi zion. Haurrak laster agertu zuen musikarako dohaina, lehen doinuak 1816 inguruan idatzita. Familiak, ordea, ez zuen nahi musika semearen lanbidea izaterik.

1821ean, Parisa jo zuen aitaren bideari jarraitzeko eta medikuntza ikasteko. Asmoak, ordea, gutxi iraun eta, handik bi urtera, ikasketak utzi zituen, musikari erabat emana bizitzeko. Parisko Kontserbatorioan sartu zen eta, 1823tik 1825era, Jean-François Le Sueur eta [Anton Reicha](#) izan zituen irakasle.

Berliozen lehen obra ezagunak 1818koak dira, baina haren jeinua 1824ra arte ez zen erabat piztu, *Meza solemnea* lanarekin (1992an aurkitu zen, galdutzat jo ondoren, konpositorea huraxe suntsitzen saiatu baitzen). Lan hori ideia musikaletarako iturri izan zen, ondotik etorri ziren beste obra batzuetarako, hots, *Sinfonia Fantastikoa*, *Inauteri erromatarra*, *Requiema* edo *Te Deum*. 1829an, *Faustoren zortzi eszenak* lana argitaratu zuen eta, 1830ean, hirutan huts egin eta gero, azkenean, Academie Française Akademiaren Erroma Saria eskuratzea lortu zuen. Sari horri esker, postu bat bermatu zitzaion Italiako hiriburuko Villa Medici ospetsuan. Toki egokia, iraganeko konpositore handien musika ikasteko eta leku berean ostatu harturik zeuden beste saridun batzuen interesak eta ikaspenak partekatzeko. Dena den, 1831tik 1832ra Erroman emandako hamabost hilabeteak ez zitzaizkion emankorregi gertatu. Hiria eremu elkorra iruditu zitzaion musikarako eta, han bizi bitartean, gutxi samar idatzi zuen. Hori bai, txango asko egin zituen Abruzzo mendietara, eta hain zuzen, hango paisaiak inspirazio-iturri gertatuko zitzaizkion bere lanik ospetsuenetako hiru ontzeko: *Harold Italian* eta *Romeo eta Julieta* sinfoniak, eta *Benvenuto Cellini* opera, Parisen arrakasta txikia izanikoa, baina obra hartatik, *Inauteri erromatarra* aterako zuena.

1833an, Berlioz [Harriet Smithson](#) aktore irlandarrarekin ezkondu zen. Neskak Shakespeareren antzezlanetan erakutsitako moldeak goitik behera liluratu zuen gure konpositorea; gainera, *Sinfonia Fantastikoa* lanaren inspirazioa eragin zion. Hura eduki programatikoa izan zuen lehen sinfonia izan zen musikaren historian. Parisen 1830ean estreinakoz emana, eragin handia izan zuen ondoko konpositoreengan eta, gainera, musikaz kanpoko elementuak sartzeari ateak irekita. Elementu horiek, denboraren joanean, besteak beste, [poema sinfonikoa](#) eragin zuten.

1837rako, ezaguna zen orkestratzaile gisa zuen talentua, eta [Luigi Cherubini](#) Parisko Kontserbatorioko zuzendariari orkestrazio gela sortzeko eskaria egin zion. Cherubini, ordea, tradizionala zen Berliozen ideia berriak barneratzeko eta postu bat eman zion: zer eta liburuzaina! Enplegua apala zen, baina konpositore handien lan ahaztuak argira ateratzeko bidea eman zion Berlioz: besteak beste, [Jean-Philippe Rameau](#) eta [Christoph Willibald Gluck](#) konpositoreen lanak. Garai hartan jaso zuen *Requiema* konposatzeko enkargua.

Handik gutxira, 1839an, hirugarren sinfonia bukatu zuen, *Romeo eta Julieta*, bakarlari, abesbatza eta orkestrarako. Urte hartan berean Parisko Kontserbatorioan estreinatu eta arrakasta handia izan zuen.

1840an, [Instrumentazio eta orkestrazio modernorako tratatua](#) idatzi zuen, eta idazkiak eragin erabakigarria izan zuen ondoko konpositorerik handienetako batzuegan, hala nola [Gustav Holst](#), [Vincent d' Indy](#), [Richard Strauss](#), [Gustav Mahler](#) eta [Bostak](#) taldean. 1846an, *Faustoren kondenzazioa* bukatu zuen. Estreinaldia, ordea, porrot hutsa izan zen eta, ondorioz, erreka jo eta atzerrira alde egin zuen, Parisko publikoaz atsekabeturik. Moskun, Berlinen edota Londresen arrakastaz zuzendu zuen lan hori bera. Berlioz, hala ere, nola edo hala saiatu zen entzule frantziarren aldeko iritzia lortzen, baita edozein amarru erabiliz ere. Horrela, artzain-abiesbatza bat sartu zuen bere *Kristoren haurtzarora* oratorioan, hura XVII. mendeko kapera-maisu batek ondua zela esanda. Jendeak lana zoragarri hartu zuen, eta Berlioz ederki trufatu zen horretaz, idazki batean.



erliozen kontzertu bat, 1846 aldean.

1854an, bere egunerokoan idatzi zuen hiru urte zeramatzala opera bat idazteko ideiak larritua; libretoa bera ere sortu nahi zuen. Ez zuen tentazioan erori nahi eta, aitortu zuenez, bukaera arte eutsi egin nahi zion tentazioan erori gabe. Gaia handientsua, sekulakoa eta sakonki hunkigarria iruditzen zitzaion; horregatik, Berliozen beraren esanetan, horrek frogatzen zuen lana "paristarrei triste eta aspergarria irudituko zaiela". Azkenean, amore eman, proiektu handi hura ondu, eta *Troiarrak* izenburuko lanak 1858an ikusi zuen argia. Lau orduko opera da, konpositorea bizirik zegoela sekulan eman ez zena.

Orduz geroztik, Berliozek denetariko zoritxarrak pairatu zituen. Horrela, hainbat krisi elkarren jarraian izatearen ondorioz, paralsiak eta afasiak Harriet emaztea jo zuten erdi-erditik, eta azkenean, 1854an hil zen. Berlioz bera ere gaixotu zen: hesteetako neuralgiak izan zituen, izugarri mingarriak, hil arte. Arreba Adèle, berriz, 1860an hil zen. Hainbeste zoritxarren artean, gertakari zorionsu bat bizi izan zuen, Marie Reciorekin ezkondu baitzen; hala ere, Marie handik gutxira zendu zen, 1862an, hain zuzen ere.

Patuaren kolpeak gorabehera, Berlioz 1860an hasi zen ontzen munta handiko bere azken lana, *Beatriz eta Benedikto*, hots, [William Shakespeare](#)ren *Zarata asko ezertarako ez lanean* oinarritutako opera komikoa. Berliozen iritziz, obra hura ez zen oso egokia publiko frantsesarentzat, konpositoreak gutxi estimatzen baitzuen publiko frantsesa. 1862an bukatu eta Alemanian estreinatu zuen; han, sei aldiz zuzendu zuen, seiak ere arrakastaz.

Frantziako publikoarekiko harreman zaila izan bazuen ere, 1864an Ohorezko Legioko Zaldun izendatu zuten. Hala ere, zoritxarrak ez zuen etenik izan eta, 1867an, semea Habanan hil zelako albisteak iritsi zen, sukarrak eraginda. Urte hartako uztailean Nizara joan zen bizitzera eta han garuneko bi atake izan zituen. 1869an hil zen, 65 urte zituela, bere lagun maite guztiak, banan-banan, galdu ondoren.


Sinfonia fantastikoa izan ezik, Berliozen musika gutxi samar interpretatzen da, bere mailako eta, are, maila apalagoko, beste konpositore batzuenaren aldean. Bereziki, kontuan hartzen baditugu haren sorkuntza-lanen originaltasuna eta kalitatea, eta zeinen eragin handia izan zuen ondotik etorritako lehen mailako konpositoreen gainean. Orkestrazio bikaina zerabilen; tinbrea ederki menderatzen zuen; lerro horizontalak gainjartzen zituen, eta harmonia eta modulazioak originalak ziren. Bada, horrek guztiak hurrengo belaunaldiak markatu zituen; aipatzekoa da, halaber, "idée fixe" sortu izana, [Richard Wagner](#), Strauss (dena den, haiek *leitmotiv* esan zioten) eta beste hainbat konpositoreengan eragin zuzena izandakoa; etorkizuneko poema sinfonikoaren sorrera, [Mendelssohn](#) eta [Liszt](#) konpositoreekin ere lotuta dagoena; eta soinu-baliabideen proportzio monumentalak.

Luzaroan Frantzian errefusatua, zuzendari ingelesak haren izenaren alde borrokatu ziren ([Sir Thomas Beecham](#), adibidez) eta haiek ere Berliozen konposiziorik gehienak grabatu zituzten. Berlioz Beethovenen berehalako oinordekoa da forma sinfonikoari dagokionez, forma hori sakon berritu baitzuen, eduki programatikoa sartuz.

HAROLD ITALIAN

1831 eta 1832 artean Erroman emandako hamabost hilean, Berlioz iruditu zitzaion oso kaskarra zela hiriburuko musikaren egoera, garai hartan. Orduz geroztik, ez zen inoiz Italiara itzuli, ezta Europa osoan barna antolatutako biren barnean ere. Egonaldi hura, ordea, ez zen alferrekoa izan eta Abruzzo mendietan barna ibili zen, herrietako jendea ezagututa, haien abestiak entzunda eta gitarraz haiekin batera arituta. Han, [pifferari](#) direlakoei entzuteko parada izan zuen. Musikari haiek gaita tradizionalak eta oboearen antzeko instrumentuak jotzen zituzten; instrumentu horien musikak arrasto berezia utzi zuen berarengan.

Egonaldi hark hainbat obratan izan zuen eragin zuzena; eraginik handienenetako bat *Harold Italian* (1834) lanean, eta Lord Byronen [Childe Harolden erromesaldiak](#) lanaren ideia orokor batzuk ere jaso zituen. Esan behar da Berliozen sinfoniak ez dituela literalki kontatzen Byronen pertsonaiaren abenturak, eta adituek zailtasun asko dituzte musikan narrazioaren hariari segitzeko. Hori dela eta, Olin Downesek txantxetan esaten du obra horrek “Berlioz Italian” izan beharko zuela izenburu.



PIFFERARI, JEAN-LÉON GÉRÔME

Behin Parisa itzulitakoan, kontzertu batzuk antolatu zituen bere obrak emateko. Horrela, 1833ko abenduaren 22an,

“Nire konposizio-plana [Paganiniri] ez zitzaiola gustatu ikusirik, beste moldez batez egiten saiatu nintzen eta, alde bakarlariarik distiratsuen egiteko moduz kezkatu gabe, eszena batzuk orkestrarako idazteko ideia bururatu zitzaidan, eta biolak haietan barneratua aurkitu beharko zuen bere burua, ekinean ari den pertsona baten antzera gutxi gorabehera, betiere biolaren indibidualtasuna gordeta. Nik konposatutako honoa Abruzzo mendietako nire ibileretan dago inspiratua; biola, berriz, ameslari malenkoniatsu baten antzera sartu nuen, Lord Byronen Childe Harold lanaren estiloan. Hortik heldu da sinfoniaren izenburua, *Harold Italian. Sinfonia fantastikoa* bezala, gai nagusi bat (biolaren lehen kantua) lan osoan ematen da; baina bada ezberdintasun bat. Izan ere, *Sinfonia fantastikoa* laneko gaia, “l’idée fixe” hura, burugogorkeriaz tartekatzen da ideia episodiko grinatsu baten antzera, arrotz zaizkion eszenen erdigunean, eta dibertigarriak zaizkio. Harolden kantua, berriz, orkestrako beste kantuei gainjartzen zaie, eta kontrastea egiten du bere mugimendu eta izaerarengatik, baina garapena eragotzi gabe.” Hector Berlioz

bere *Sinfonia fantastikoa* interpretatu zuen, eta publikoak oso ongi hartu zuen. Konpositorearen arabera, kontzertua eman eta gero, gizon tximatsu bat hurbildu zitzaion zoriontzeko; [Niccolò Paganini](#) zen eta esan zion emanaldia ustekabe atsegina izan zitzaiola, eta biolarako kontzertu bat enkargatu nahi ziola. Paganinik, garai hartako biolin-maisurik handienak, [Stradivarius](#) biola bat erosi berri zuen eta publikoaren aurrean aurkeztu nahi zuen, baina ez zen behar bezain lan birtuosorik berari ohorea egiteko. Horrenbestez, instrumentuarendako lan duina konposatzeko erregutu zion Berlioz. Gure konpositorea, ordea, orkestrarako idazketari emana zegoen bereziki eta aitortu zuen ez zuela biola bakarlaria ezagutzen; horregatik, hasieran, ezezkoa eman, eta erantzun zion inork idatz bazezakeen horrelako lanik, Paganini bera zela. Paganini, ordea, gaixo zebilen, eta ez zuen sentitzen behar adinako indarririk lanari ekiteko, eta tematu zen. Berliozek azkenean onartu, baina ondutako lan hura ez zen izan preseski Paganinik espero bezalakoa.



Entsegu Irekiaren Fitxa Didaktikoa
Martxoak 24, 11:00 Baluarteko areto nagusian
NOSeko 8.denboraldi-kontzertua

Behin lehen mugimendua ondutakoan, Berliozek emaitza Paganiniri erakutsi zion. Eta Paganinik, harritura, atsekabetua eta haserre, esan zion hura ez zela lan birtuosoa: isilune gehiegi zegoela, eta biola ez zela inola ere nabarmentzen. Berak etengabe jo behar zuen eta eginkizun nagusia izan orkestraren aurrean. Nahigabetua, Paganinik obra baztertu zuen. Berliozek, hala ere, lana idazten jarraitu zuen eta sinfonia heterodoxoa sortu zuen, biola bakarlarria orkestrarekin nahasita, ikusle neutralaren eginkizuna hartuta. Gaiak, hau da, lau mugimenduetan erabateko presentzia duen “idée fixe” horrek, instrumentuaren tinbre malenkoniatsua baliatzen du.

Lana Parisko Kontserbatorioan estreinatu zen, 1834ko azaroaren 23an, biola-jotzailea Crétien Urhan izan zelarik, eta zuzendaria, berriz, Narcisse Girard. Izugarriko laudorioak jaso zituen, baina Berlioz ez zen inola ere pozik gelditu interpretazioarekin. Itxuraz, Girard ez zen gauza izan laugarren mugimenduko *tempo*a aurkitzeko eta, bigarrenaren bisa egin zuenean, instrumentu batzuk galdu egin ziren, zuzendariak ia 50 konpas saltatu zituen, eta hura moldatu gabe eman zion orkestrari azken akordea jotzeko agindua. Dena den, obrari, oro har, kritika onak egin zitzaizkion. Hala ere, eta ziur aski Girarden interpretazio txarrak eraginda, kritika txar batzuk ere argitaratu ziren. Azken horietako batek, hain zuzen, hitz joko bat egin zuen izenburuarekin, lana irrigarri utzi nahian. Artikuluaren hasiera hauxe zen: “Ha, ha, ha! Haro! Haro!” . Gainera, estreinaldiaren biharamunean, Berliozek gutun bat jaso zuen eta, hartan, nonbait, “bere buruaz beste egitera” gonbidatu zuten, “tamainako bidegabekeria” idazteagatik.

Hala eta guztiz ere, publikoari gustatu zitzaion eta hainbat aldiz eman zen. Haietako bat 1838an. Paganini entzuleen artean zegoen eta lehen aldiz entzun zuen. Berliozek bere egunkarian idatzi zuen nolakoa izan zen bien arteko topaketa, behin kontzertua amaitutakoan, baina ziurrenera, hura ez zen benetan gertatu, gauzak puzteko joera baitzuen, eta datu batzuk ez datoz bat Paganiniren izaerarekin. Sekulan ez da baieztatzerik izan. Hala ere, hona hemen hitzez hitz:

“Kontzertua bukatu zenean, [...] Paganini niregana etorri zen keinu zakarrak eginez, Achilles semea atzetik zerraikiola. Eztarriko gaitzaren ondorioz (azkenean horrek eraginda hil zen) ahotsa erabat galdua zuen eta, dena isilik ez bazegoen, inork ere ezin zuen entzun edo asmatu Paganini zer esaten ari zen, semeak izan ezik. Haurrari keinu bat egin, semea aulki batera igo, belarria aitaren ahotik hurbil jarri eta erne entzun zuen. Gero, Achilles jaitsi zen, eta niregana biratuta, hauxe esan zuen: “Nire aitak nahi du zuri ziurtatzea, jauna, sekulan ez dela bizitzan hain hunkitua egon kontzertu batean; zure musikak aski hunkitu egin duela eta, bere burua kontrolatuko ez balu, belauniko jarri eta eskerrak emanen zizkizula” . Sinesgogortasunezko keinu bat egin nuen hitz arraro horiek entzunda, baina Paganinik, nire besoari helduta eta totelka, gelditzen zitzaion ahots apurrarekin, “bai, bai!” esan eta agertokira bultzatu ninduen eta, han, artean ere interprete asko gelditzen zirela, belaunikatu eta eskuan musu egin zidan” .

Biharamunean, Berliozek Paganiniren gutun bat jaso zuen. Biolinistak obra konposatu izana eskertu zion eta garai hartako 20.000 libera ordainduko ziola agindu (konpositoreak urtebetean irabazten zuenaren bikoitza). Dirutza Rotschildeko Baroiak emanen zion, Paganinirengandik berarengandik jaso ondoren. Dena den, nekez gertatuko zen horrelakorik, Paganini xuhur izugarria baitzen eta, gainera, muinetaraino zegoen zorrak eramana, Parisko Kasinoan jokoan aritzeko zaletasunaren ondorioz. Uste da egiazko emaila Berliozen lagun bat izan zela, hots, Armand Bertini, anonimatuan gelditu nahi izan zuena, Berlioz oso harroa zelako eta dirua ez zuelako onartuko, hori jakin izatera. Gainera, istorioak bie eman zien aipua, Berlioz eta Paganiniri, eta biak ere horren premian zeuden.

Paganinik ez zuen inoiz sinfonia jo, handik gutxira hil baitzen. Haren *Stradivarius* biola Washingtingo Corcoran Gallery of Art galerian gordea dago gaur egun, eta 1994ara arte, gutxienez, National Symphony Orkestrak obra hori eman duen bakoitzean instrumentu hori erabiltzeko aukera izan du.



Entsegu Irekiaren Fitxa Didaktikoa
Martxoak 24, 11:00 Baluarteko areto nagusian
NOSeko 8.denboraldi-kontzertua

Grabazioei dagokienez, lehenbizikoa William Primrosek egin zuen; hau da, [Béla Bartóken Biolarako kontzertua](#) estreinatu eta grabatu zuen lehenak.

Azken bitxikeria gisa, [Terrence Malick](#) zinegileak bere "To the Wonder" (2012) filmean erabili zuen *Harold Italian*, sinfoniaren edukari eta haren istorioari buruzko eszenetan, hain zuzen.

Formaren eta estiloaren azterketa laburra

[Harold Italian](#) Berliozen bigarren sinfonia da. *Sinfonia fantastikoari* jarraitzen zaio eta *Romeo eta Julieta* lanaren aurrekoa da. Sinfoniak ahots bakarlarria eta abesbatza dauzka, Beethovenen *Bederatzigarren Sinfoniaren* moldean. Lau mugimendutan konposatua, [Byronen](#) *Childe Harlden erromesaldiak* laneko eszena batzuk ekartzen dizkigu musikalki gogora. Behin eta berriz agertzen den gaia, hau da, "idée fixe" delakoa, biola bakarlariaren eskuetan utzi da eta lan osoan esku hartzen du. Baina, bakarlari aski berezia da, ez baita kontzertu tradizionalan bezain nagusia. Mugimendu bakoitzean, melodia era kontrapuntistikoan konbinatzen da gainerako gaiekin.

Berliozen lanik poetikoena eta lasaia da. Kontraste nabarmena du *Sinfonia fantastikoarekin*; nagusiki, Harolden malenkonia ameslariari dagokionez, ez baitu *Fantastikoak* duen larrimina. Azken mugimenduan erretratututako orgiak berak ere ez du *Songe d' une nuit de Sabbat* mugimenduaren amesgaizto girotik ezer ere. *Harold* laneko bidelapurak gizakiak dira; ez munstroak, ordea. Laugarren mugimenduan badira finezia handiko pasarteak, aurreko mugimenduetako oroitzapenekin batera.

Formari dagokionez, *Harold Italian* ez da biolarako kontzertua. Horregatik atsekabetu zen Paganini, Berliozek partitura erakutsi zionean. Biolaren zatiak ez du inola ere bertuosismoa xede. Era berean, ez da sinfoniaren eta kontzertuaren arteko sintesia, baina esan liteke sinfoniaren eta ganbera-musikaren asimilazio bat dela, eta pasarte askok horixe iradokitzen dute, non instrumentazioa nahita baitago murriztua.

Harold Italian lau mugimendutan egituratua dago:

- I. Harold mendietan. Eszenari malenkonia, zoriona eta poza darizkio (Adagio-Allegro)
- II. Erromesen martxa arratsaldeko otoitza kantatzen (Allegretto)
- III. Maitemindu baten serenata Abruzzo mendietan (Allegro assai-Allegretto)
- IV. Bidelapurren orgia. Aurreko eszenen gaineko oroitzapenak (Allegro frenetico-Adagio)

Orkestraziori dagokionez, talde handi samarra behar du, tinbre dirdiratsuarekin:

- 2 txirula (2. txirula piccoloarekin partitura berdina aldi berean joz), 2 oboe (1. oboea adar ingelesarekin partitura berdina aldi berean joz), 2 klarinete, 4 fagot
- 4 tronpa, 2 turuta, 2 tronpeta, 3 tronboi, tuba
- Tinbalak, txindatak, triangelua, 2 danbolin
- Harpa, biola bakarlarria eta hariak

40 minutu inguruko iraupena du.



Entsegu Irekiaren Fitxa Didaktikoa
Martxoak 24, 11:00 Baluarteko areto nagusian
NOSeko 8.denboraldi-kontzertua

ehen mugimendua *Sinfonia fantastikoa*ren oihartzun batekin hasten da, tonuerdiko txandakatze bat da goiko edo beheko notarekin, oso marrazki ohikoa da Berliozen idazketan, *Harold Italian* laneko beste pasarte batzuetan errepikatzen dena.

Heroiaren erretratua da, Italiako paisaien ametsezko hondo iradokitzailearen gainean, Haroldek mendietan aurkitzen dituen eszena malenkoniatsuak aipatzeko. Azentu biziz beteriko sarrera ilun baten ondotik, Harolden gaia iristen da, biola bakarlariak emana. Bitxia da nola Berliozen aurkezten duen gaia lehenik modu minorrean eta gero nola aldatzen duen biolara modu maiorrean. Aditu batzuek nolabaiteko ironiaz adierazi dute horrek konpositorearen "izaera bipolarrekin" duela lotura. Gai horren ezaugarri batzuk Beethovenen *Zazpigarren sinfoniako* lehen mugimenduan ageri dira, hala nola mugimendua eta enfasia bai erritmoan, bai tinbrearen kolorean.

Biola bakarlariaren gai nagusia aurreko lan batetik dator, Berliozen estreinatu eta gutxira baztertutakoa: *Rob Royren* obertura. Gai erregularra da, ezohikoa gure konpositorearen idazketan, lau konpaseko bi aldi simetrikos osatua. Sinfoniaren material tematikoa hein handian eratortzen da gai horretatik: zehazki, lehen mugimenduko lehen eta bigarren gaiak, hirugarreneko serenata eta laugarreneko gai nagusia.

Berliozen berak esan zuen **bigarren mugimendua** pare bat ordutan inprobisatu zuela, arratsalde batez tximinia aurrean eserita. Gero, sei urte eman zituen xehetasunak leundu nahian, nahiz eta lehen interpretazioa (1834) izugarri laudatua izan zen.

Prozesio baten iradokizuna da, eta hantxe doaz erromesak otoitzak kantatzen. Hasieran, melodia urruti entzuten da; poliki-poliki, hurbiltzen doa, eta afektu hori soinu-intentsitatea areagotuz lortzen da. Azkenean, erromesak berriz ere urruntzen ari direla irudikatzen ditugu. Ezkilak urrutian entzuten dira, erromesak ermita urrun batera doazelako irudia sortuta. Eta bitxia da nola lortzen duen Berliozen soinu-efektua, hau da, ezkila tubularrak erabili beharrean, pasarte bat idazten du, zeinean harpak, txirulek, oboeak eta tronpek kanpai-hotsak ezin hobeki imitatzen dituzten. Bitartean, biolak arpegio diskretuak egiten ditu.

Mugimendu honetan, lehenbizikoan bezala, lotura guneak ere aurkituko ditugu Beethovenen *Zazpigarren sinfoniarekin*: izan ere, bietan, bigarren mugimendua Allegretto bat da eta, ez ordea, ohiko Adagioa edo Andantea. Baina mugimendu horrek ere [Mendelssohnen Sinfonia italiarra](#) lanarekin du lotura; horrela, obra horretako bigarren mugimenduari ("Andante con moto") "Erromesen martxa" izena eman baitzioten, Berliozen obran bezalaxe.

Hirugarren mugimenduak zuzenean dakarkigu Berliozen Italiako oroitzapenen oihartzuna: hark Erroman eta hurbileko mendietan entzundako *pifferari*en musika. Hemen, oboeak eta piccoloak *pifferari*en imitazioa egiten dute, eta hariak, berriz, gaiten efektua sortzen dute. Dirudienez, hasierako gaia, *saltarello* bat, Italiako herri doinu batean oinarritua egon zen. Bitxia da nola Mendelssohnek ere erabili zuen dantza horren erritmoa bere *Sinfonia italiarra* lanean, 1833an estreinatutakoa.

Trioan, biolaren eta adar ingelesaren arteko duo liriko bat entzuten da, maitasuneko eszena bat irudikatzeko: hots, nekazari batek serenata bat eskaintzen dio bere maiteari. Hitzik gabeko abesti gisako bat bezala pentsatua dago eta horditasun gorakor gisako bati jarraitzen dio, erritmo eta tinbre guztiak gainjartzen baitira, eta bukaera ederki dago zizelkatua.

Laugarren eta azken mugimenduan gaia sarrerarik gabe aurkezten da. Indarrez hasten da, bidelapurren orgian bete-betean sartuta; une batez geldotzen da, baina aurreko mugimenduetako material melodikoaren oroitzapen laburra egiteko bakarrik. Berliozen berak mugimenduaz esan zuen orgia bortitz bat bezalakoa zela, ardoa, odola eta poza nahasita, hordikeria nabarmenduta; zenbaitetan, ematen du erritmoak estropezu egiten duela, eta bestetan,



Entsegu Irekiaren Fitxa Didaktikoa
Martxoak 24, 11:00 Baluarteko areto nagusian
NOSeko 8.denboraldi-kontzertua

berriz, bortxaz azkartu egiten dela; aldi berean iduri du metalek madarikazioak “oka” egiten dituztela eta juramentuka erantzuten diotela otoitzari; irri eta edan egiten dute, borrokatu eta hondatu, gehiegikeriei erabat emanak.

Espiritualki nekaturia eta jota, Haroldi kontsolagarri zai bidelapurrekin egotea, taberna batean, beharbada. Jacques Barzunen arabera, “Berliozen bidelapurak bidegabekeria sozialaren mendekatzaileak dira, Estatuaren kontrako matxinada; naturara jotzen dute gizaki sozialaren zauriak sendatzeko” . Azken mugimenduan aurreko gaien laburbilduma egiten da eta, gero, berriz, zurrumbilo zorabiagarri batean sartzen da, kantu basatiz, oihuz, irriz eta erreguz beterikoa, harik eta bigarren planoan erromesen gaia isilean agertzen den arte. Ondoren, azken kodak mugimendua itxi eta sinfonia maisuki amaitzen du.

EMANALDIAZ ARDURATUKO DIRA...

Orkestrako zuzendaria

Joseph Swensen NFM Leopoldinum Orkestrako zuzendari artistikoa da Wrocław hirian (Polonia), Scottish Chamber Orkestrako zuzendari emeritua eta Granadako Hiria Orkestrako zuzendari gonbidatua. Lehenago, Parisko Orchestre de Chambreko zuzendari gonbidatu nagusia eta aholkulari artistikoa izan zen, bai eta Malmöko Operako zuzendari nagusia ere. Swensenek harreman berezia dauka Toulouseko Orchestre National du Capitollarekin, zuzendari gonbidaturik zaharrena baita, eta Porto Casa da Musicako Orkestra Sinfonikoarekin. Halaber, Galeseko BBC National Orkestrarekin aritu ohi da lankidetzan, bai eta Nafarroako Orkestra Sinfonikoarekin ere. Pedagogo estimatua da eta, halaber, zuzendaritza, biolin eta ganbera-musikako irakasle gonbidatua Glasgowko Royal Conservatoire of Scotland kontserbatorioan.



Orkestrekiko lotura sendoak egiteagatik aitortua, aldian-aldian gonbidatzen dute zuzentzera mundu zabalean eta bira luzeak egin ditu AEBn, European eta Ekialde Urrunean; horrela, hainbat jaialditan agertzen da, hala nola Mostly Mozart jaialdian New Yorken, Tanglewood eta Ravinia Jaialdian, BBC-n, Proms-en, “Radio Franceko Jaialdian” eta Nantesko “La Folle Journée” jaialdian eta Tokiokoa.

Zuzendari hasi baino lehen, ibilbide arrakastatsua egin zuen biolin bakarlaria gisa, eta mundu zabaleko orkestra eta zuzendari nagusiekin aritu zen; halaber, grabazioak egin zituen BMG Classics etxerako. Zuzendari gisa, Joseph Swensenek Signum-erako grabatu du eta lankidetzan estuan aritu da Linn-ekin, Scottish Chamber Orkestrarekin, Violin Concertos Collection grabatuta, hots, 4 CDko kutxa bat, duela gutxi plazaratua, eta arrakasta handikoa nazioarteko kritikari dagokionez.

Joseph Swensen estatubatuarra da, eta jatorriz norvegiarra eta japoniarra. Hoboken hirian jaioa (New Jersey), Harlemen hazi zen, New Yorken.



Entsegu Irekiaren Fitxa Didaktikoa
Martxoak 24, 11:00 Baluarte areto nagusian
NOSeko 8.denboraldi-kontzertua

Nafarroako Orkestra Sinfonikoa



Orquesta Sinfónica de Navarra,
por el Estudio fotográfico Pujol

Pablo Sarasatek 1879an sortua, Nafarroako Orkestra Sinfonikoa jardunean ari den talderik zaharrena da Espainiako orkestren artean. Gaur egun, Baluarte Fundazioan sarturik dago, nagusiki Nafarroako Gobernuak finantzatzen duena, eta Foru Komunitateko orkestra ofiziala da. Ehun eta berrogei urteko ibilbidean, Espainiako zein atzerriko auditorio, opera-denboraldi eta jaialdi nagusietan aritu da. Kontzertu batzuek garrantzi berezia izan dute; horien artean daude Parisko Théâtre des Champs Elysées eta Théâtre du Châtelet antzokietan hainbat aldiz emanikoak eta Universal Music zigiluak antolatutako biraren barnean Europako auditorio garrantzitsuetan egindakoak.

Pablo Sarasate konpositore eta biolin-jotzailearen erreferentziatzko interpretea den aldetik, nafar konpositorearen lan guztien grabazioa egin du Naxos-erako Tianwa Yang biolin-jotzailearekin; esan behar da nazioarteko kritikak aho batez laudatu duela grabazio-lana. Zigilu berarekin, OSN-NOSek, halaber, grabazio sorta garrantzitsu bat egin du Antoni Wit maisuarekin.

Nafarroako Orkestra Sinfonikoa kontzertu-denboraldien bidez aurkezten da Nafarroako publikoaren aitzinean, bai Iruñeko Baluarte Auditorioan, bai Tuterako Gaztambide Antzokian, eta, laster ere, Tafallako Tafalla Kulturgunean. Bestalde, gizarte nahiz hezkuntza jarduera garrantzitsua garatzen du Foru Komunitate guztian, "Sinfonikoa Nafarroan" programaren baitan, eta grabazioak egin ohi ditu AMAENerako, hau da, Nafarroako Musikaren eta Arte Eszenikoen Artxiborako. Etorkezun hurbilean, hainbat grabazio-proiektu ditu aurreikusitak hala musika sinfonikoan nola zinemako musikan.

María Setuain Belzunegui, hezkuntza-materialaren sortzailea

Especialista da Musika Bitartekaritzan Sorbonako Unibertsitatean, irakaslea eta txirularia, [Musicados](#) blogaren egilea da. Aldian-aldian aritzen da lankidetzan hainbat entitaterekin, ekintza sozio-hezigarriak pentsatu, diseinatu eta egiteko, betiere musika ardatz hartuta